

# noaua

## ERRIOAZ ETA BERE INGURUAZ GOZATZEKO AUKERA PAREGABEA

Aginagako Jai Batzordeak Erriorearen Eguna iragarri du larunbat honetarako / 10




ARGAZKIA: GORKA LASA



**Haur jaioberrien  
familiei zuzendutako  
ongietorri oparia  
berritu egin dute** / 08



**Euskal Sagardoa  
jatorri deituraren  
esanetan, "sagar urte  
oparoa izan da"** / 17



**Frank Delgado  
kantari kubatarra  
Sutegin arituko da  
igande honetan** / 22

**Bertso-ibilaldia  
Aginagan, Andoni  
Egaña eta Maialen  
Lujanbiorekin** / 09



**Aginaga, jai betean** / 12



  
**USURBIL**  
 O P T I K A

**2x1**

**PROGRESIBO,  
 URRUTIKO  
 ETA GERTUKO  
 BIGARREN  
 LENTE PAREA  
 DOAN!**

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL [usurbiloptika@hotmail.com](mailto:usurbiloptika@hotmail.com)


**NOAOA**  
 BIDAIAK



Dubai, Oman, Abu Dhabi

IRTEERA 2024ko Aste Santua

Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
 Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • [info@noaoa.eus](mailto:info@noaoa.eus) • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



# Lodosako Pikillo eta Najerako piperra

  
**ALKARTASUNA**  
 Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

**Piperra 3 eratan eska daiteke:**

- Gordinik
- Erreta eta garbia 500gr-ko poltsetan
- Izozteko 400 gr-ko poltsetan

Eskariak 2023/10/15 arte jasoko dira.

[www.alkartasuna.eus](http://www.alkartasuna.eus)

**Alkartasuna Kooperatiban:**  
 Atallu industrialdea 26, Usurbil  
 943 361 114 eta 630 938 027  
[alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)

## Jarduera fisikoa sustatzeko kanpainak emakume asko erakarri zituen

Gipuzkoako Foru Aldundiak emakumeen aktibotasuna sustatu nahi du. Jarduera fisikoaren garrantzia azpimarratzeko helburuarekin, kanpaina bat abiarazi berri du. Aplikazio bat sortu dute eta herriz herri ari dira egitasmoa plazaratzen. Aurreko ostiralean Usurbilen izan ziren, aplikazioaren berri ematen.



Ostiral arratsaldean, lagun kuadrilla hau elkartu zen Egoa Alvaradoren entrenamenduan.

Usurbilgo Udalak ere bat egin du ekimenarekin eta entrenamendu bat antolatu zu-

ten Mikel Laboa plazan. Moov zentroko Egoa Alvaradok gidatu zuen saioa. Lagun kua-

drilla handi bat bertaratu zen. Gazte zein heldu, hainbat ariketa fisiko egin zituzten.

## Garbigune mugikorra, Usurbilgo kaxkoan

Urriaren 5etik aurrera, garbigune mugikorra Mikel Laboa plazan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrera-bilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Urriaren 12tik osteguna, garbigune mugikorra Aginagako kaxkora eramango dute.

## Nahia Zudaire, ur irekietako munduko proban hirugarren

Zubietako igerilariak ur irekietako Munduko Kopan parte hartu zuen iraileko azken asteburuan eta brontzeko dominarekin etxeratu zen. Sardiniako (Italia) San Teodoro hondartzan jokatu zen proba eta 3.000 metroko proban, S7-S10 mailan egin zuen igeri Buruntzaldea IKTKo igerilariak.

## Booktegiko 'Poesia irakurraldian' parte hartzeko gonbita

Booktegi jaialdiko 'Poesia irakurraldia' urriaren 28an ospatuko da, goizeko 11:00etan Zumarte musika eskolako ganbaran. Parte hartu nahi dutenek udal liburutegian eman dezakete izena. Hautatutako poema helbide honetara bidali behar da urriaren 19a baino lehen: [biblioteka@usurbil.eus](mailto:biblioteka@usurbil.eus)

## Nerea Ibarzabalen 'Bar Gloria' aztertuko dute Sutegin

Urriaren 17an asteartea, literatur solasaldi berri bat egingo dute Sutegi udal liburutegian. Honakoan, Nerea Ibarzabal Salegiren *Bar Gloria* (Susa, 2022) nobela hartuko dute hizpide. 19:00etan hasiko da ekitaldia eta egilea bertan izango da. Nobelaren hainbat ale liburutegian dituzue eskuragarri.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
[elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatorra:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

## IRITZIA



LUIS ARANALDE

## Beste agur bat

**D**uela hilabete pare bat, nire iloba Anderrek esan zidan nirekin hitz egin nahi zuela bere hileta-agurra prestatzeko. "Nire osaba zara, nire irakasle izan zara eta nire lagun zaitut. Nire azken agur hori zuk zuzentzea nahi nuke". Berehala garbi utzi zidan zeremonia horrek laikoa izan behar zuela, zibila. "Ez naiz sinestedun", esan zidan. Ni buru izan nintzen hileta batzuetan parte hartu zuen (bere aitonarenean, duela ia urtebete bere osabarenean) eta zerbitzu hori prestatzeko egokia ikusten ninduen nonbait.

"Laikoa, baina, espiritualetasunak bere 'txokoa' izan behar du bada errito zibil horrek, ezta?", galdetu nion. "Noski", erantzun zidan. Berakzioenez, bere bizitzan zehar alderdi espiritual horrek garrantzi handia izan zuen beti, gogo handiz landu zituen giza baloreei dagozkien maitasuna, enpatia, solidaritatea eta bizitzaren zentzua.

Agurra zeremonia hori prestatzerakoan San Agustinen testu bat proposatu nion. Honela hasten da: "Heriotza ez da ezer. Ni aldameneko gelara joan naiz. Ni neu naiz eta zu zeu zara. Bata bestearentzat ginena, halaxe izaten jarraitzen dugu. Zain naukazu. Ez nago urruti, bidearen beste aldean bakarrik. Haria ez da eten. Berriz ere aurkituko duzu nire bihotza". San Agustinen testu honekin guztiz bat zetorrela esan zidan. Beste



"Guztiok esperantzaz jantziko gaituen agurra behar dugu".

irakurgaia Usurbilgo Joxean Artzeren poematxo bat zen eta honela amaitzen da: "Bizi naiz zehar, bizia kantatuko dut". Testu hau ere gustatu zitzaion, baina San Agustinen bano gutxi xieago. Zeremonian kantatu behar ziren abestiak ere aukeratu genituen.

Nire iloba Anderrekin izan dudana azken topaketa hau, nire bizitzako bizipenik eder eta aberasgarrienetakotzat jotzen dut. Heriotzaren aurrean zerion bakea, sosegua eta argitasuna, niretzat energia, esperantzaz eta bizitzari konfiantzaz atxikitzeko 'txute' bat izan zen. Gure agurrek, erlijiosoak nahiz laikoak, dena

**"GURE AGURREK, ERLIJIOSOAK NAHIZ LAIKOAK, DENA ESATEN DUTE MUNDUAN EGOTEKO DUGUN MODUAZ"**

esaten dute munduan egoteko dugun modua.

Azken agur horiek orain arte kristau kredoak gobernatuta egon dira, ospatu dira, monokoloreak izan dira. Orain aldiz, ikusiz zein jende klase hurbiltzen den gure hiletetara, gero eta gehiago utzi behariko ditugu pulpituak alde batera eta beste estilo xumeago, gertuago eta konpartituago bat erabili. Niretzat, agur zibilak erlijiosoak bezain sakratuak dira. Ekimen edo errito bat ez da sakratua Jainkoaz hitz egiten delako, maitasunaz, enpatiaz eta solidaritatez jantzita dagoelako baizik.

Ni traje eta gorbatuz jantzita nengoan zeremonia horretan eta bertara hurbildu zen jende piloak (gazteak batez ere) ez zituen batere faltan bota ohizko alba, estola eta kasuila.

Arrazoi du Koldo Aldai pentsalariak: "Ez nire agurra, ezta zurea ere, ez nagusi den kredoarena edo bere faltarena, baizik denok (sinestedunok eta sinesgabeak) elkartuko gaituena baizik, eta batez ere, guztiok esperantzaz jantziko gaituen agurra behar dugu".

Facundo Cabral kantautore handiaren hitz batzuekin amaitu genuen gure ospakizuna: "Miguel joan zaigu (guretzat Ander), baina ez dugu inor galdu. Aurreratu egin zaigula soilik, harantz baikoaz denok. Baina berak zuen gauzarik ederrena, maitasuna, gudan dago".

## Kulturgunea: "Ordu askotako lanak merezi izan duela ikusi dugu"

Ondoko eskertza mezua argitaratu du Usurbilgo Kulturguneak duela bi aste buru ospatu zen Xumetik herri jaialdiaren ostean:

"Joan zaigu Xumetik herri jaialdia, baina ez da oharkabea pasa usurbildarren begietatik. Zumetaren hormaren magala kolorez blaitu dute zuen mugimendu eta ahotsak. Plazaratutako hitzen oihartzunek kaxkoko mugei so egin eta harrizko hormak gainditu dituzte. Duela berrogeita hamar urte josten hasi ziren bideak amaierarik ez duelako elkarlanak aurrera jarraitzen duen bitartean.

Usurbilgo Kultugunetik eskerrak eman nahi dizkizuegu, erokeria honen parte izateagatik. Ordu askotako lanak merezi izan duela ikusi dugu, zuetako bakoitzari ihes egingo irribarre bakoitzak erakutsi zigun bezala.

Lanean jarraituko dugu txorriek hegan egiten jarrai dezaten eta zu bide horren zati izatea nahi genuke. Eskerrik asko!".

### 'Zumeta 23' film laburra sarean ipini dute ikusgai

Oskar Alegria zinema zuzendariak Usurbilgo Udalaren enkarguz iragan ekainean Zubietan grabaturiko film laburra pasa den Xumetik herri jaialdian aurkeztu zuten. Proiektzio haietara joaterik izan ez bazenuten, sarean duzue ikusgai, Usurbilgo Udalaren Youtubeko kanalean hain zuzen.



IKA-MIKA

**84.650 eta 500**

**BIZITZA PLATAFORMA**

Gizakien Erabilerarako Medikamentuen Farmako Zaintzarako Espainiar Sistemak, Covid19 Txertoen 19. Farmako Zaintza Txostena osatu du (Interneten bilatu). Bertan onartzen da, ofizialki 84.650 gertaera kaltegarrien jakinarazpen izan direla, 14.003 larrizat jo zirenak, eta 500 hildako.

Hau da bertsio ofiziala. Euskadiko Biologoek Elkargoko dekanok ohiak, Jon Ander Etxebarriak, duela urtebeteko datuekin osaturiko txostenean, Euskadin, 3.000 pertsona baino gehiagoren gain hilkortasuna Covid txertoekin erlazionatu zuen.

Covid19aren aurkako ziztadek, ofizialki ez dutela txerto definizioarekin bat egiten jakina da, produktu

ESPERIMENTAL genikoak dira. Horregatik, 19. farmako zaintza txostenean agertzen diren datuei so eginez, euskal arduradun politikoei Covid19ari aurre egiteko produktu esperimental hauek merkatutik kentzen jardun beharko lukete.

Usurbilgo udalean, mozio bat aurkeztu da, bi txostenetan oinarrituta (Jon Ander Etxebarriak eginikoa). Osakidetza, aipaturiko gain hilkortasuna zergatik eman den aztertu dezan eskatzen zaio, eta Euskal Autonomia Erkidegoko txerto kanpaina berehala gelditzea. Alkatetza eta Gobernu Taldea, mozio hau Usurbilgo Udaleko Osoko Bilkuran eztabaidatzea eragotzen ari dira. Zergatik? Egia bilatzeko nahia balego, aurkeztutako 2 txostenen fidagarritasuna egiaztatzea nahikoa litzateke. Txostenak

benetakoak edo faltsuak izan daitezke soilik.

EMAK eta Espainiako Pediatria Elkarteko Aholkularitza Batzordeak Covid-aren aurkako 2 produktu geniko baimendu ditu, 6 hilabetetik 4 urtera arte bata eta 6 hilabetetik 5 urtera arteko haurrentzat bestea.

Euskal Osasun Sistemaren Covid19aren aurkako aurtengo txertaketa estrategiak, populazio diana hau du helburu: 60 urtez gorakoak. Haurdun eta erditze oste aldian dauden emakumeak (erditzetik 6 hilabete arte eta haurdunaldian txertorik jaso gabekoak).

Zergatik 19. Farmako Zaintza Txostenak ez du oihartzunik izan Euskal Komunikabideetan, Euskal Herritarren aurkako erasorik garrantzitsuenetako bat izanik?



**Aginagako eskolaz kanpoko ekintzak finkatu dituzte**

2023-24 ikasturtea hasi berri-tan honako eskaintza iragarri du Aginagako San Praixku guraso elkarteak:

**Asteazkenetan:**

- Psikomotrizitatea, 2-6 urtera artekoentzat.
- Ordutegia: 17:00-18:00.
- Prezioa: 30 euro/hilabetea.

**Ostegunetan:**

- Oihal akrobaziak, 5 urtetik gorako haurrentzat.
- Ordutegia: 16:30-17:30.
- Prezioa: 30 euro/hilabetea.

**Ostiraletan:**

- Pintura saioak, 4 urtetik gorako haurrentzat.
- Ordutegia: 16:30-18:00.
- Prezioa: 35 euro/hilabetea.

**Izen-ematea**

Izen emateko deitu aurrez telefono zenbaki honetara, urriaren 10a baino lehen: 695 723 192.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus

**"Oldarraldiaren aurrean" euskararekin bat egiteko deia**

"Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat" aldarripean manifestazioa deitu dute euskalgintzako erakunde nagusiek azaroaren 4an Bilbon. Hautatu duten alda-

rriari lotuta, "oldarraldi eta olatu erreakzionarioen gainetik euskararen normalizazioa eta biziberritzean eragiteko eta sakontzeko unea dela" adierazi nahi dute, "euskara gizarte

kohesiorako, berdintasunerako eta justizia sozialerako ezinbesteko osagaia dela", gogoraztearekin batera. Manifestazio honen aldeko atxikimendua eman, manifestuairakurri nahiz hitzordu honi begirako baliabideak eskura daitezke kontseilua.eus atarian. "Euskalgintzak dei zabala egin die euskararen

alde dauden Euskal Herri oso-gizarte eragile, mugimendu eta norbanako guztiei azaroaren 4ko manifestaziora deitzeko tokian toki mobilizatu daitezten, herri eta auzoetan ekimenak antolatuz, informazioa banatuz, edota hurbileko zein ez hain hurbileko jendeari manifestazioaren berri emanez".

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA  
PLATER KOMBINATUAK  
BOKATAK · PINTXOAK  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Parti**  
Parti  
bazkariak EGUNERO  
afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 · © 688 690 361

# "Etnografoaren lana da gizakiak sortutako kultura materiala aztertzea"

**SUBERRI MATELO** HISTORIALARIA

Fermin Leizaola etnografoaren arbasoak Barazar baserrikoak ziren. Urte luzez bildu duen ondarea katalogatzen ari dira Aranzadin. Suberri Matelo historialariak eman dizkigu azalpenak.



Suberri Matelo (ezkerrean) Aranzadiko kide da eta Fermin Leizaola etnografoak (erdian) batutako ondarea katalogatzen ari da, Aranzadiko beste hainbat kiderekin batera. ARGAZKIA: JUANTXO EGAÑA.

Fermin Leizaola umetan maiz joaten zen Barazarrera familiarekin aitak eta osabak base-rria saldu zuten arte. Barazarretik ateratako objektuak ere badaude Aranzadin katalogatzen ari diren tresnen artean. Suberri Matelo historialaria da katalogatzeko lanaren ardura-dunetako bat eta berarekin izan da NOAUA! proiektu honen nondik norakoak ezagutzeko.

**Fermin Leizaola etnografoaren lana katalogatzen ari zarete. 4.500 lanabes inguru dira. Katalogatze lan hori nolakoa da?**

Fermin Leizaolaren ogibidea etnografia ez den arren, gaztetatik darama diziplina honetan lanean. Etnografoaren lana da gizakiak eta gizarteak sortutako kultura materiala aztertzea.

Pertsonak sortutako tresnak, ohiturak, arropa eta abar aztertu eta ikertu egiten du etnografoak. Ferminek bizitza osoa pasa du baserrietako, fabriketako eta etxeetako lanabesak jasotzen. Berari, batez ere, artzaintza gustatzen zaio. Euskal Herriko mendi artzaintzak daukan aditurik onenetakoa da Fermin. Ardiei, gaztari eta sektoreari lotutako guztia ezagutzen du. Artzainak ondo ezagutzen ditu eta Idiazabal gaztari lotutako sarietako epaimahaian egon izan da urte luzeetan zehar. Urte hauetan jasotako tresna guztiak gorde ditu Nafarroako baserri batean: lanabesak, erramintak, altzariak... Adinean aurrera doa eta hil aurretik material hau guztia Gipuzkoako Foru Aldundiari uztea erabaki

du. Bilduma osoa Foru Aldundiari zuzenean utzi beharrean, erabaki zuen gazte batzuek katalogatzea nahi zuela. Material guztia hartu zuenean bezala dago; pieza batzuk zikinak daude, beste batzuk apurtuta... objektu guztiak garbitu, txukundu pixka bat, etiketa bat jarri, inbentarioa egin eta Ferminek pieza horiei buruz dakien guztia datu base batean idaztea

**"HIL AURRETIK MATERIAL HAU GUZTIA FORU ALDUNDIARI UZTEA ERABAKI DU FERMIN LEIZAOLAK"**

da gure lana, eta argazkiak ateratzea. 2019an hasi genuen prozesua eta orain arte 2000-2500 pieza katalogatu ditugu. Urtebete inguru geratzen zaigu lana bukatzeko. 4500 pieza inguru daudela uste dugu, baina ez gaude ziur dena kaxetan gordeta daukagulako eta inoiz ez dugulako zenbatu. Katalogatuta dauden pieza guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiak dauzka jada Gordailuan gorde-ta.

**Gordailua Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroaren esku utziko du 4.500 lanabesez osatutako landa-ondarea.**

Gordailua Irunen dago eta Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen material historikoak gordetzea da bere funtzioa. Depositu edo biltegi handi bat da. Gordailuan gordeta egongo dira pieza guztiak eta museoren batek edo entitate batek erakusketaren bat egin nahi badu eskatu egiten dituzte bertatik ateratzeko. Egun, Gordailuan 70.000 pieza inguru egongo dira. Gipuzkoako museoetan ez dauden piezak Gordailuan daude, Kutxa Fundazioaren ondarea ere bai, baita Aldundiaren ondarea ere. Horrez gain, arkeologian lortzen den material guztia, indusketak egin ondoren, Gordailura joaten da, derrigorrez. Ondarea ahalik eta ondoen gorde eta mantentzeko depositu handi bat da tenperatura eta hezetasun jakin bat dituen. Horrela, ondarea ahalik eta urte gehien kontserba daiteke behar bezala.

**Gordailuaren esku utziko duela diogunean, Gordailuak zer egingo du lanabesekin? Ondarea osorik jasoko du Gordailuak edo hautaketa egingo duzue?**

Ferminek eman nahi duen ondare guztia Gordailuan egongo da, osorik. Berarentzat gorde ditu Ferminek apurtuta zeuden pieza batzuk edo oso material errepikakorra. Zintzarri asko zeuzkan eta batzuk eman ditu ikerketarako, baina beste batzuk gorde egin ditu lekua egiteko.

→ **Zubietako Barazar baserrian bizi izan zen Ferminen familia duela urte asko eta baserri horretako piezak ere badauzkazue.** Ferminen familia zuen Barazarren, baina hura donostiarra da eta Grosen egin du bizitza osoa. Barazar baserria Ferminen aitona-amonena izan zen eta, gutxienez, 400 urtez bere familia bizi izan zen bertan. Erdia aitarena eta beste erdia osabarena bihurtu zen aitona-amonak hil ondoren. Beraz, hura askotan joaten zen bertara umea zela. 80ko hamarkada inguruan edo, aitak eta osabak baserria saldu zuten eta beste familia batek hartu zuen. Beraz, nahiz eta baserriatik ateratako objektuak izan katalogatzen ari garen horien artean, ez du esan nahi Ferminen familiarenak zirenik.

#### **Barazarko lanabesak ere badaude piezen artean?**

Ez nuke zehazten jakingo oraindik objektu guztiak ez ditugulako aztertu, eta baliteke oraindik katalogatutako arteen gehiago egotea. Momentuz, aztertu ditugun arteen 16 dira Barazarrekoak eta guztiak altzariak edo sukaldeko tresnak dira.

#### **4.500 pieza horien artean zeintzuk dira azpimarragarrienak edo bixienak izan daitezkeenak?**

Pieza gehienak nahiko ohikoak dira: lanabesak, zintzarriak... bereziena bere horretan, azpimarratuko nuke Fermin saiatu dela pieza bera Euskal Herriko leku ezberdinetan biltzen tipologia zabalagoa izateko eta tokian tokiko ezberdintasunak aztertzeke. Ferminen aitak inprenta makinak

fabrikatzen zituen eta inprententzat saltzen zituen makinak. Makina horietako piezak eta letrak jaso ditu. Oso bereziak egiten zaizkit niri makina horiek errotatibetako letra eta tipologia horiek guztiak. Hori oso kuriozoso da, ez da baserri girokoa, baina berezia da.

#### **Nafarroan dauzka lanabesak. Denak daude han museo handi bat balira bezala?**

Sakanako Urdiain herrian dagoen baserri batean zeuzkan gordeta guk Donostiara katalogatzera ekarri genituen arte. Baserri baten zati txiki bat erosizuen bere gordailu propioa izateko, baina 2019tik Aranzadiren tailer batean dauzkagu Bidebietan. 100 palet eta kaxa dauzkagu ondo bilduta materialarekin, eta horren ondorioz, ez dakigu ziur zenbat material daukagun.

#### **Museo modura funtzionatzen du leku horrek edo Ferminen ez du inoiz bilduma atea irekita izan interesa duenak ikusteko?**

Inoiz ez du museo modura jarri. Beti izan zen biltegi moduko bat. Astero joaten zen bertara eta dena txukun-txukun kaxatan gordeta zeukan. Berak bazekien non zeukan dena eta ikerketaren bat egiten ari bazen, bazekien bere bilduman zer zeukan eta non eta bertatik hartzen zuen. Ikerketarako zeukan material hori, batik bat eta hitzaldiak ematen zituenean ere, bertara eramaten zituen pieza batzuk. Aldizkari askotan saiatu zen aditzera ematen artzainen gaien gainean. Bokazioz gorde ditu piezak orain arte, azken finean.

**"GORDAILUA IRUNEN DA ETA BERE FUNTZIOA ALDUNDIAK DUEN MATERIALA JASOTZEA DA"**

**"EUSKAL HERRIKO MENDI ARTZAINZAK DUEN ADITURIK ONENETAKOA DA FERMIN LEIZAOLA"**



Argazkian, Aranzadiko kideak, praktiketako ikasleak eta Fermin Leizaola. ARANZADI



"2019an hasi ginenetik hona, 2.000-2.500 pieza inguru katalogatu ditugu". ARANZADI



"Ferminen bizitza osoa pasa du hango eta hemengo lanabesak jasotzen". ARANZADI



"Materiala jaso bezala dago. Pieza batzuk zikinak daude, besteak apurtuta..."

# Haur jaioberrien familiei zuzendutako ongietorri oparia berri dute

Oparia familien tipologiara egokitu dute eta bitarteko digitalen aldeko apustua egin dute. Gainera, euskara.buruntzaldea.eus webgunea ere eguneratu dute.

Buruntzaldeko sei udalen ekimenez, jaioberrien familiei hainbat baliabide eskaintzen zaizkie: zorion gutuna, hizkuntzari buruzko aholkuak, abestien CD-a eta ibilgailuan jartzeko pegatina. Garaiak eta gizartea aldatzen doazenez, opariarena birformulatu egin dute.

## Familia eredu berrietara egokitzea

Biztanleria aldatzen ari da eta horrekin batera, familien tipologia. Familia horiei hainbat baliabide eskaintzera dator material berriak, hizkuntzak ikasten laguntzeko arduraren familiarena ere badelako.

## Garai berrietara egokitzea

Garaiak ere aldatzen ari diren honetan, bitarteko digitalen aldeko apustua egin da.

## Hiru opariko sorta

- Karpetatxoa: Jaioberrientzako ongi etorri eta zorion mezua 15 hizkuntzatan jasotzen da.
- Iman-euskarria: Egunerokoan umeekin erabiltzen diren esae-labur eta erraz batzuekin: otorduak, lotarakoan, agurtzeko...
- Haurtxoekin jolastean, abesten zenbatzen izeneko liburuxka zabalgarria: Ilustrazio bizi-bizi eta erakargarriekin jantzita, alde batean, euskaraz zenbatzeko; bestean, berriz, jolasak, abestiak eta euskarazko hainbat esae bildu dira.

Gainera, jolas, abesti eta esae guzti-guztiak euskarri digitalean ere jaso dira; euskarri fisikotik, QR kodeen bidez, atari digitalera salto



Jaioberriei luzatu ohi zaien materiala eguneratzearekin batera, euskara.buruntzaldea.eus webgunea ere berri dute jakinarazi dute.

egiteko. Euskara.buruntzaldea.eus webgunean ikusgai daude bideo eta audioak.

## Familiak, haurren bidelagun

Buruntzaldeko udalen esanetan, "garrantzitsua da familiak kontzientziatzea edozein egoera eta harremanetan bi hizkuntza ofizialetan eroso komunikatzeko gaitasuna eskuratzea onuragarria izango dela". Haurrek eskolan euskaraz ikasiko badute ere, "familiek haurren bidelagun izan behar dute hizkuntzak eurenganatzeko prozesuan.

**HAURREK ESKOLAN EUSKARAZ IKASIKO BADUTE ERE, "FAMILIEK HAURREN BIDELAGUN IZAN BEHAR DUTE. GUZTIEK DUTE ZER-NOLA ERAGIN".**

Eta familia guzti-guztiek dute, bakoitzak bere errealitatetik abiatuta, zer-nola eragin". Hala, lau familia-tipologia bereizita (familia euskaldunak, mistoak, euskaraz ulertzen dutenak eta euskara ezagutzen ez dutenak) familia bakoitzari lauzpabost gomendio luzatzen zaizkie.

## Euskara.buruntzaldea.eus webgunea berri dute

Jaioberrien materiala berri-tzearekin batera, euskara.buruntzaldea.eus webgunea ere eguneratu da. "Diseinuz ataria azalberritu ez ezik, edukia ere txukundu, eguneratu eta berrantolatu dira", Buruntzaldeko udalek aditzera eman dutenez. "Txikienekin euskaraz aritzeko aipatutako material erakargarria osatzea izan da lehentasuna, baina gazte eta helduentzat ere baliabide mordoxka aurki daiteke bertan, informazio orokorrekina batera (albis-teak, kultur agenda, dirulaguntzak, aholkularitza, itzulpen-zerbitzuak, etab.)".

## Bota Puntubako helduen taldea martxan

Herri bilgune hone-tatik NOAUA!ri jakinarazi diotenez, ikas-turte berriarekin batera berriz ere martxan da helduen bat-bateko taldea.

## Ostegunetan, Potxoenean

Bertsotan kantuan aritzeko gogoz dabilena gerturatu dadila ostegunetan 18:30ean Potxoene-ara. Bertan ikusiko dugu elkar!".

## Udarregi ikastola, Erronkako txapeldunorde

Udarregi ikastola izan da, urriaren lehenean Erreterian ospatu-riko Kilometroak jaialdiaren baitako Erronka ekimeneko aurtengo txapeldun-ordea.

## 500 euroko saria

Udarregikoek 500 euroko saria irabazi zuten. Legazpiko Haztegi ikastolak batu zituen puntu gehien eta haiek 1.000 euroko saria eskuratu zuten, hirugarren postuan sailkatu zen Ibarako Uzturpe eta 300 euroko saria jaso zuten. Hogei ikastoletako 280 ikasle parte hartu zuten, tartean, Usurbilgo ordezkari-ritza batek.



# Sagardotarako sagarren erakusketa Sutegin

Alkartasunak sagar erakusketa eta "sagardoaren paisaia kulturala ezagutzeko bertso-ibilaldia" antolatu ditu egunotarako.

Sagardotarako baliatzen diren sagar motak ikusgai dituzue egunotan Sutegin eta Alkartasuna Usurbilgo Baseritarren Kooperatiban.

"Sagardotarako erabiltzen ditugun 115 bariatere artean aukeraketa ikusgai", ohartarazi dute antolatzaileek. Alkartasunarekin batera, Sagardoaren Unibertsitateak eta Usurbilgo Udalak antolatutako ekimena duzue urriaren

9ra arte ikusgai izango duzue.

## Sagar gehiago batzeko deia

Gutxienez, 21 sagar mota batu dituzte: Goikoetxe, pelestriña, errezilla, haritza... Baina mota gehiago batu nahi erakusketarako eta horretarako laguntza eskatua dute. "Gonbita egiten diogu etxean sagarra duen orori, kooperatibara ekar dezan, bilduma osatzeko".



Sutegin erakusketa urriaren 9ra arte izango duzue ikusgai.

## Bertso-ibilaldia Aginagako sagastietan barrena

Loraldi bete betekoa izan zuten sagasti gehienek udaberrian eta sagar asko hartu zuten sagarrondoek. Horrez gain, uda nahikoa euritsua izan da eta sagar aleak asko hazi dira. Ikusgarri daude inguruko sagasti asko eta aukera hori baliatu nahi dute Alkartasunakoek. Ibilaldia ez-ohikoa izango da, bertsoari garrantzia dutelako igande honetako paseoa.

### Aginagako plazatik abiatuko dira

Igandeko ibilaldia goizeko 10:00etan abiatuko da Aginagako plazatik, eta "sagardoaren paisaia kulturala ezagutzeko parada" izango da.

### Maialen Lujanbio eta Andoni Egañarekin

Bertso ibilaldia San Praixku jaiaren biharamunean ego-



Jakoba Errekondok gidatuko du igande honetako bertso-ibilaldia. Goizeko 10:00etan batuko dira Aginagako plazan.

kitu da. Irteerara animatzen direnek Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertso-lariak izango dituzte bide-

lagun. Jakoba Errekondok gidatuko du artaldea. Hori bai, aldeztatik eman behar da izena.

### Izen-ematea:

943 361 114  
alkartasuna@usurbil.com  
www.alkartasuna.eus



Larunbat honetan Errioren Eguna ospatuko dute Aginagan. ARGAZKIA: GORKA LASA.

## Erriogan barrena, surf taulan, traineruan edota alan

Jarduera ugari iragarri dituzte larunbaterako. Mapilen elkartuko dira eta bertara oinez joateko deia egin du Jai Batzordeak.

Aginagako Jai Batzordeko kideek azaldu digutenez, "Begi Bistan enpresaren zerbitzua kontratatu dugu, Txokoaldetik Oriora jaitzierak antolatzen

dituena". Enpresa honek ekarriko ditu piraguak eta padel surf egitekoak, "tartean, padel surf erraldoi bat 8-10 pertsona gainean ibiltzeko".

Horrez gain, Iñaki Errasti arraunlariak Ondarroa bere klubeko traineru bat ekarriko du, bertan ibili ahal izateko.

Hori dena gutxi balitz, Aginagako alak ere protagonista izango dira. "3-4 ala eta ala-gizon ere hor ibiliko dira", Jai Batzordetik aditzera eman digutenez. Beraz, "interesa agertzen duten guztiak erriogan barrena paseatzeko aukera ugari izango dituzte".

### Otordua, jubilatuen eskutik

Errioko festa borobiltzeko, jan-edana ere izango da Ma-

pil aldean. Aginagako jubilatuek prestatuko dute otordua.

### Mapilen batzeko deia

Jarduera hauetan parte hartu nahi duten guztiak Mapilera hurbildu beharko dute. "Sarbide errazena hor dagoelako batetik, eta historikoki ere alagune nagusia hor izan delako".

Aparkatzeko tokirik ez dagoenez, oinez gerturatzeko deia egin du Jai Batzordeak. "Bide eta paseo polita dago bertara joateko eta oinez gerturatzeko deia egin nahi dugu, Mapilen ez baitago lekurik aparkatzeko".

Errioren partea da erribera eta "bertatik ikaragarriko paseo polita dago Mapileraino, bai Aginagatik, Txokoaldetik eta Usurbildik". Errioren Eguneko antolatzaileek dioten bezala, "egun borobila izan liteke, paseatuz gerturatu, erriogan ibili, hamaiketako eder bat dastatu eta berriz ere paseatuz etxeratzeko".

### Urriak 7, larunbata: Errioren Eguna

• 11:00 Mapilen. "Gozatu errioz": piraguak, alan paseoak eta traineruan arraunnean ibiltzeko aukera eta hamaiketakoa.

## Aginagako Eliza Zaharrerako sarbidea itxita, jai egunetan izan ezik

Usurbilgo Udalak ohartarazi duenez, saneamendu lanak egin behar dituzte eremu horretan.

Astelehen honetan hastekoak ziren obrak. Udalak ohar baten bidez aditzera eman duenez, "Añarbek eta URAsaneamendu lanak egin behar dituzte Aginagako eliza inguruan". Ondorioz, N634 errepidetik Eliza Zahar aldera igotzeko sarbidea itxita izango da, hamar bat egunez.

**10 egun beharko dituzte saneamendu-lanak burutzeko**  
Denbora tarte horretan, "Aginagako Eliza Zahar aldeko sarrera trafikoarentzat itxiko dute". Ez egunero, ordea. San Praixkuetan murgildu berri den Aginagan, jai egunotan bertatik igarotzeko aukera izango da. "San Praixku egunean zein festetako bi asteburuetan bidea irekita egongo da", Usurbilgo Udalak iragarri duenez.



"Añarbek eta URA agentziak saneamendu lanak egin behar dituzte egunotan".



Iñaki Errasti etxekoekin batera ageri da, Aginagako jaien hasieran egin zioten omenaldian. Oparitan jaso zuen arrauna du eskuartearen. NOAUA!

# Iñaki Errasti omendu zuten jaien hasieran

Arraunlari gisa mende laurdenez eginiko ibilbidean edonora joanda ere, Aginagaren "izena eta izana itsasoratzeagatik" eskertu eta omendu zuten Iñaki Errasti, irailaren 29ko San Praixkuen hasiera ekitaldian.

"Erriotik barrena ur gainean gure izana eta izena itsasoratzeagatik esker onez, Agiñako herria". Mezu hau zeraman arrauna oparituta omendu zuten Iñaki Errasti, Aginagako jaien hasieran. Bera izan da aurtengo omendua eta txupinazoa pizteko ohorea izan duen aginagarra. Hunkituta eta pozik agertu zen ekitaldira joandako lagun, senide eta herrikideen aurrera. "Eskerrik asko denoi. Duela astebete esan zidatenean, ez nuen espero, ilusio handia egin dit", adierazi zuen

mikrofono parean jarri berri-tan.

## Erriorearen Egunerako gonbita

Arraunlari gisa, "mende laurdunen batez jorratu duen ibilbide oparora borobiltzear duen honetan, denbora tarte honetan guztian zehar, etxekoan, lagunaren babesa sentitu dut. Eskertzekoa da", adierazi zuen. Ekitaldira joandakoei jaietan primeran pasatzeko desioa helarazi zien Errastik. "Aprobetxatu San Praixkuak topera, ez dakigu eta bihar non egongo garen".

Hitzordu guztietan parte hartzeko gonbita egin zuten parean zituenei, modu berezian estreinako, urriaren 7an ospatuko den Erriorearen Egunean. Alan, piraguan ibili edota Iñakik berak ekarritako ontzian arraunean egiteko aukera izango du goizeko 11:00etan Mapilera hurbilduko den orok. "Alan paseoak egin, paddle surfean aritu, traineruan arraun egiteko aukera izango da. Ea denon artean egun polit bat pasatzen dugun".

Deialdi horrekin bat egin zuten baita Jai Batzordeak. "Ez

dugu errioreari bizkar emanda bizi nahi, gure bizitzaren eta ondarearen parte izaten jarraitu dezan nahi dugu. Hurrengo larunbatean, erriorekin eta urarekin berriro harremanetan jartzeko aukera izango dugu. Ea urtean zehar ere konturatzen garen zer altxor dugun ondoan eta mantentzen dugun".

Ez da Aginagaren etorkizunera begira duten erroka bakarra. Hor dute baita erakitzen doazen herri kooperatibaren egitasmoa. "Pixkanaka forma hartzen hasi da zorionez. Etorkizuneko denda kooperatibaren sustapena, telekomunikazioak eta bestelako zerbitzu eta beharrak ase nahi ditugu tresna berri honen bidez". Jakinarazi dutenez, "une honetan estatutuak amaitzen ari gara eta gero proiektuei bete-betea ekiteko ordua izango da. Milesker, benetan, bide honetan elkarrekin arraun egiten ari garen guztioi, bikain izaten ari da".

# AGINAGAKO JAIAK



Iñaki Errastik jaien hasieran oparitu zioten arrauna goratu zuen ueña. NOAUA!



Jaien hasiera ekitaldira joandakoak, txupinazoko balkoira begira. NOAUA!



"Son de hoy" taldearen erritmo kubatarrekin abiarazi zituzten jaiak. NOAUA!



Herri afaria izaten da jaietako aginagarren bilgune nagusia. NOAUA!



Oilasko biltzaileen talde jendetsua Mapiletik Kaxkorantz. NOAUA!



Uda giro beteko goiza izan zuten oilasko biltzaileek. NOAUA!



Mus jokalariek Eliza Zaharra goraino bete zuten jaietako txapelketan. NOAUA!



Rakel Pujanak eta Jon Ostolazak girotu zuten herri afari aurreko poteoa. NOAUA!

# Aginaga jaien azken txanpan murgilduko da

## Urriak 4, asteazkena: San Praixku Eguna

- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Jubilatuen hamaiketakoa Aginaga Sagardotegian. Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu bertsolariek girotuko dute otordua.
- 18:00 Herri kirolak frontoian, herritarren arteko erronkaren hasiera.
- 19:30 Sardina eta sagardo banaketa.
- Bitartean, XXXIX. Toka txapelketa eta buruhandiak.

## Urriak 6, ostirala: Umeen Eguna

- 10:00 Umeen jolasen hasiera.

- 13:00 Umeen bazkari goxo-goxoa.
- 16:00 Puzgarriak frontoian.
- 17:30 Txokolate goxo-goxoa.
- 18:30 Ur zezenaren entzierroa Aginaga Sagardotegitik plazara eta buruhandiak.
- 19:00 Musikaz girotutako poteoa.
- 21:00 Gazte afaria Aginaga Sagardotegian. Prezioa: 30 euro. Izena emateko idatzi irailaren 29aren aurretik: 616 93 35 56.
- 23:00 Txosna irekiera.
- 23:30 Kontzertuak Eliza Zaharrean: Viafara eta Ameba.
- Ondoren, Dj Urdaira Eliza Zaharrean.



Ostiral arratsaldean puzgarriak ipiniko dituzte frontoian.

- Egunak argitzean, denok etxera.

## Urriak 7, larunbata: Erriorearen eta Kintoen Eguna

- 11:00 "Gozatu errioz": piraguak, alan paseok eta traineruan arraunean ibiltzeko aukera eta hamaiketakoa.
- 18:00 Txosna irekiera.

- 19:30 Distopia Elektrotxaranga.
- 00:00 Kontzertua eta erromeria frontoian: Herenegun eta Bidebatez.
- 03:30 DJ ZKN Brothers Eliza Zaharrean.
- 08:00 Errefus bilketa.

Antolatzaileak: Aginagako Jai Batzordea.

**Bertso-ibilaldia**  
**Usurbil inguruko**  
**Sagastietan barrena**

**Urriak 8, IGANDEA**  
 Aginagako plazan,  
 10:00tan.

**Bertsolariak:** Maialen Lujanbio  
 eta Andoni Egaña

**Hizketarako gaiaren gidaria:**  
 Jakoba Errekondo

**MORAU ARDO BEÑARDO** **BAZKARI KANTALDIA**  
**PATRI JATETXEA**  
**URRIAK 21 / 14:00**

**erreserba ezazu lekua!**

**MENUA**

KROKETA  
 BAKAILAO BRIKA  
 GAZTA URDIN ETA INTXAUR ENTZALADA  
 OILASKO ERREA PATATEKIN  
 POSTREA:  
 NARANJA BUDINA, HELATUA ETA TXOKOLATEAREKIN  
 KAFA  
 EDARIK:  
 1/2 SAGARDO EDO 1/2 ARDOA  
 URA ETA OGIA BARNE

**35 EURO**

[info@patrijatetxea.eus](mailto:info@patrijatetxea.eus) / 943 362725



## ANDATZA TABERNA

**Inagurazioa:**  
Urriak 6, Ostirala, 18:30

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Razioak
- Plater konbinatuak

“Matia-Egurtzegi egoitza” Kalezar auzoa 12 USURBIL Telefonoa: 943 73 20 27

## ELKAR-EKIN LANEAN: ZAINTZA PROIEKTUA

- PZ2 MENDEKO PERTSONEI GIZARTE-ERAKUNDEETAN GIZARTE ETA OSASUN ARRETA EMATEA (370 ordu)
- SUKALDARITZA MODULUA (60 ordu)
- GARBIKETA MODULUA (40 ordu)
- Oinarrizko gaitasunak (25 ordu)
- Gaitasun soziolaboralak (15 ordu)
- Praktikak enpreetan: (Gutxienez 80 ordu). Beka 9€/egun

Aurreikusitako datak:  
urritik martxora

Orduategia: 09:30 / 14:30,  
astelehenetik ostiralera

Lanbide kodea:  
IP23200295

Informazio gehiago: 943 47 40 83  
/ 722 168 951 (Estibaliz Zugasti)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO





Euskal Herriko Mugimendu Feministak egin du azaroaren 30erako greba deialdia.

## Zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba deitu dute azaroaren 30erako

Ekimenarekin bat eginez, Euskal Herriko Neska\* Gazteek Baterajotzea antolatu dute Usurbilen, "Utopiak lehertzeraz goaz!" aldarripean.

Berriki Hego Euskal Herriko hiriburuetan egin zituzten mobilizazioen harira, badatorren azaroaren 30eko zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba orokorrerako deia egin zuen berriz Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Gogoan izan, martxoaren 8an plazaratu zuen deialdi hau, "egungo zaintza sistema iraultzeko urgentzia mahai gainean jarritz, lanean aritu gara auzo eta herrietako asanbladetan".

Hiriburuetak mobilizazioen ondotik, "herrietako greba komiteetara batzeko deia luzatzen diegu euskal herritarrei. Batu asanbladetara eta mobilizatu! Azaroaren 30ean zaintza eskubide kolektiboaren alde, denok Greba Feminista Orokorra!", egin du gonbita Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Gogoan izan,

Usurbilen maiatzean hasi zen biltzen herrikide talde bat Potoxoenean, Kafe Tertuliak deituta.

### Herri Akordioa eta Baterajotzea

Datozen astei begira, azaroaren 30eko greba feminista orokorraren aurretik, zenbait deialdi iragarri dira. Batetik, Euskal Herriko Mugimendu Feministak eginikoa. "Urriaren 7an aurkeztuko dugun Herri Akordioa izango dugu oinarri: sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala gainditu eta guztion bizitzak erdigunean jarriko dituen euskal zaintza sistema publiko eta komunitarioa definituz goaz", aurreratu dute.

Bestetik, gogoan izan, Euskal Herriko Neska\* Gazteek Baterajotzea antolatu dute Usurbilen urriaren 13tik 15era, "Utopiak lehertzeraz goaz!"

aldarripean. "Sistema kapitalista zisheteropatriarkala iraultzeko proposamenak irudikatu eta artikulatzera, hausturak kolektiboki antolatzera eta utopiak lehertzeraz gatoz", iragarri zuten antolatzaileek apirilean egin zuten ekimen honen aurkezpenean.

**"PERTSONA GUZTIOK BIZI OSOAN ZEHAZ, ASKATASUNEZ ETA KONPROMISOZ ZAINTEKO ETA ZAINDUAK IZATEKO ESKUBIDEA" ALDARRIKATUKO DUTE**

### Zaintza sistema publiko duin baten alde

Azaroaren 30eko greba feminista orokorra deitzearekin batera abiarazi zuen Euskal Herriko Mugimendu Feministak Denon Bizitzak Erdigunean izeneko prozesua. Bere bidez, "jauzi politikoa eman nahi dugu; bizitza duinez hitz egiten ari gara, nork, nola eta zergatik zaintzen duen eztabaidaren erdigunera ekarri. Zaintza lanak aitortzearen eta banatzearen ezinbestekotasuna adierazi nahi dugu".

Gai honi dagokionean, egun bizi dugun egoera salatu dute. "Baina, lan hori ikusezin mantentzeko interesa dute batzuek: lan horiek soldatapetik zein lan erregimen orokorretik kanpo utziz, negozioa egiten baitute. Zaintza lanak geroz eta gehiago emakume migratu eta arrazializatuen gain jartzen dira, baldintza eta esplotazio egoera muturrekoetan. Instituzio ezberdinak eta zaintza lanekin negozioa egiten ari diren enpresak bizi dugun egoeraren erantzuleak izanik, pribatizazioarekin eta zaintza lanen merkantilizazioarekin behingoz amaitzea exijitzen dugu. Zaintza sistema publiko duin bat lortzeko urratsak ematera goaz!".

Horregatik, "bizitza duinak eraikitzeko, bizitzak zaintzea ezinbestekoa da". Zaintza eskubide kolektibo honen aldekoa da azaroaren 30erako deitu duten greba feminista orokorra, "pertsona guztiok bizi osoan zehar, askatasunez eta konpromisoz zaintzeko eta zainduak izateko eskubidea aldarrikatzeko".

Gizonezkoei ere deia egin diete. "Gizonak ere ezin aipatu gabe utzi, haiei ere dagokien ardura hartzeko exijitzen diegu eta prozesu honetara batu daitezten: Greba Feminista orokorra izango da azaroaren 30ekoa, Mugimendu Feminista, eragile sozio-sindikalak zein euskal herritar oro kalera batera aterako gara".



Udako etenaldiaren ondorengo lehen osoko bilkura egin zuten joan den irailaren 28an. NOAUA!

# Hiru mozio eta zenbait kreditu aldaketa

Udal aurrekontuen kopurua 17 milioi eura igoarazi duten zenbait kreditu aldaketa onartu eta Bizitza Usurbil elkarteak aurkezturiko hiru mozioen aurka bozkatu zuen aho batez udalbatzak, iragan irailaren 28an egin zuten uda osteko lehenengo osoko bilkuran.

862.000 euroko kreditu aldaketa onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz iragan asteko osoko bilkuran, EHBildu eta PSE udal taldeetako ordezkarien aldeko botoekin. EAJ abstentitu zen. Aipatu kopuru horretatik, 700.000 euro udalaren gerakinetatik finantzatu da eta beste 170.000 euro inguru jasotzea espero ez zen dirulaguntza batekin. Diru txertaketahonekin, aurtengoan 17 milioi euro inguruko aurrekontua kudeatzen ari dela nabarmendu zuten udal gobernu taldeak. "Zenbaki historikoak" dira honako hauek, alkate Agurtzane Solaberrietak gogorarazi zuenez. Diru kopuru horren erdia gutxi gorabehera, auzoetako inbertsioetara bideratuko dute: Etxealdiako beheko eremuko apar-

kalekuak egokitu eta espazio berrantolatzea, baita Santueneko auzoko sarrerara ere edota Kalezarko aldapa, hasi Txirikordatik eta Egurtzegiraino doana konpondu eta bertako azpiegiturak berritzera. Udal aurrekontuetan txertaturiko diru kopuruaren beste erdia gastu arruntak ordaintzera bideratuko du Udalak. Izan ere, ezusteko gastu bati aurre egin beharrean aurkitu da Usurbilgo Udala, baita Gipuzkoako gainerako udalerrak ere. Hain zuzen, hainbat zerbitzu jasotzeko (gasa, argindarra) udal guztiok Gipuzkoako Foru Aldundiaren zentralera atxikituak daude. Urte hasieran, udal aurrekontuetan orduko tarifen araberrako aurreikuspena egin zen. Aldiz, hilabete haietan amai-

tu zen Diputazioak ordura arte zuten lizitazioa. Esleipen berririk ez zuela egin azaldu zuten udal gobernu taldeak eta "prezio berriak udalak aurreikusitakoak baino askoz altuagoak izan dira, eta, ondorioz, irailerako partidak agortu dira", zioen alkateak iragan asteko osoko bilkuran.

## Hiru mozio

Aipaturikoarekin batera, presaz diru txertaketa behar zuten partida gehiago egonda, alka-

**"862.000 EUROKO KREDITU ALDAKETA ONARTU ZUEN UDALBATZAK GEHIENGO OSOZ"**

te dekretuz beste bi kreditu aldaketa onartu ditu Udalak. Batetik, berea den Agerialdeko eraikineko espazioa konfiantzaren pedagogira egokitzeko 55.000 euro bideratu ditu. Egitasmo eta gastu arrunt gehiagora ere bideratu ditu aipatu diru txertaketak.

Bestalde, osoko bilkura hartan hiru mozio aurkeztu zituen Bizitza Usurbil elkarteak. Bi covid19ak eragindako osasun krisialdiari lotutakoak, hirugarrena trantsizio ekologikoari buruzkoa. Hiru mozioen aurka bozkatu zuten aho batez udal ordezkariak.

Udal gobernu taldeak azaldu zuten, "luze zabal" hitz egiteko eta aipatu elkartearen iritzia entzuteko aukera izan dute alde aurretik. Udalbatza berria izanda, zinegotziek hauen berri izateko eraman zituzten iragan asteko udalbatzarrera. Errespetagarritzat jotzen dituzte aurkezturiko testuak baina "udalez gaindiko" gaia zela eta edukia ez dutela partekatzen adierazi zuten. Txertoaren gaia esaterako kontu pertsonaltzat jo zuten. Covid19ak eragindako mundu mailako osasun krisialdiari lotutako mozioei dagokienez, oroitu zuten "goitik beherako erabaki asko kudeatu" beharrean aurkitu zirela, baina halere udalerrri honen ereduagarritasuna nabarmendu zuten, "herritarren osasuna eta bizitza soziala bermatzen" ahalegindu izanagatik. Trantsizio energetikoari lotutako mozioari dagokionean, orain arte bezala, norabide horretan lanean segitzeko asmoa agertu zuten EHBildutik azken osoko bilkuran. Uraren kudeaketa jarri zuten adibide gisa, Erroizpeko presako urez herria hornitzeko eginiko inbertsioak edota abian den energia berriztagarrien komunitatea. Elikadura subiranotasunaren alorrean Behemendirekin lanikidetzan ari direla gaineratu zuten.





"Uzta handia espero da". Euskal Sagardoaren sustatzaileek prentsaurrekoa eskaini zuten Villabonako Otarrea sagastian.

# "Sagar urte oparoa izan da 2023koa"

Sagarra biltzeko unea heldu den garai honetan, Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak aurtengo uzta oparo datorrela ohartarazi du. Aurreikuspenak bete direla adierazi dute.

Iazko sagar uzta "txikiaren" ondotik, aurtengoa oparo dator. "Loraldi bete betekoa izan zuten sagasti gehienek udaberrian eta sagar asko hartu dute sagarrondoek. Horrez gain, udara nahiko euritsua izan da eta sagar aleak asko hazi dira".

Horren ondorioz, "sagar oso osasuntsua da aurtengoa, poliki-poliki hazten eta heltzen joan dena, udarako eguraldiak medio. Iaz baino alkohol gutxiago izango du orokorrean, eta sagar mota guztientzako izan da uzta oparoa. Horrek sagardogileari lan egiteko aukera paregabea ematen dio, gustuko sagar motatetik sagarra aukeran izango baitu, gezak nahiz gaziak", berrieman dute Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren sustatzaileek.

Urte garai honetan ohikoa den moduan, dagoeneko sagar

billetari ekin diote. Asteotan guztira, "sei milioi kilo pasa biltzea aurreikusten da Euskal Sagardora bideratutako sagastietan". Egun, 250 sagar ekoizle eta 500 hektarea inguru sagasti daude Euskal Sagardoaren barruan eta eremu hauetan guztietako ekoizpena "Jatorri Deiturako 50 sagardotegietara" bideratzen dute "Euskal Sagardoa ekoizteko".

## Euskal Sagardoaren baitan, 106 sagar mota ezberdin

Jatorri Deitura honek 106 mota sagar ditu onartuak, haietatik gezak nahiz gaziak diren 24 dira, aldiz, gehien erabiltzen dituztenak. "Horien nahasketa egokiak emango dizkio sagardoari bere ezaugarriak eta sagardotegi bakoitzak bilatzen du bere gustuko nahasketa eta sagardoa".

## Akordioak sustatzen

Urtez urte, gehitzen doan kopurua dela ohartarazi dute. Oraintxe, Jatorri Deituraren sustatzaileen esanetan, 150 hektarea txertatu dituzte berriki ekoizpenean, gehienak Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako dirulaguntzekin. "Geroz eta sagar gehiago ari da izaten bertako sagastietan, dauden sagastiak zaindu eta sagasti berriak aldatu eta pro-

## "GAUR EGUN, 250 SAGAR EKOIZLE ETA 500 HEKTAREA INGURU SAGASTI DAUDE EUSKAL SAGARDOAREN BAITAN LANEAN"

dukzioan sartu ahala. Bide horretan, sagarzaile eta sagardotegi arteko akordioak lotzen ari da Euskal Sagardoa Jatorri Deitura, luzerako elkarlana baita bertako produktzioa handitu, sektoreak indartu, produktuak posizionatu eta kalitatea bermatzeko modurik egokiena". Aurrera begira, bide horretan sakondu nahi dute.

## Hiru proiektu estrategiko

"15 urtean %100 bertako sagar hutsez egitea hemengo sagardo guztia". Hori da eronka nagusia. Horrekin batera, hauek dira Foru Aldundiarekin lantzen hasiak diren egitasmo nabarmenenak.

### Polinizazioa

"Bertako sagar motek elkar polinizatzeko duten gaitasuna aztertzen ari da sektorea, Fruitel elkartearen eskutik. UPNarekin batean egin da proiektua eta emaitzak badaude dagoeneko".

### Uztaren orekatzea

"Sagar asko den urteetan sagarra bakanetzea garrantzitsua da, urtero uzta orekatuagoak izateko" eta horri lotutako hainbat entsegu egin dituzte dagoeneko zenbait sagar motekin.

### Lurraren lanketa

Sektorea formatzea ezinbestekoa da, uztak orekatzeaz gain, kalitatezko sagarra izateko. Ikastaro desberdinak egin ditu sagar sektoreak horren bueltan.



Baterajotzea, Euskal Herri mailako topaketa feminista, urriaren 13tik 15era ospatuko da Usurbilen. NOAUA

# Euskal Herriko feminista gazteen topaleku bihurtuko da Usurbilgo herria

"Utopiak lehertzeraino!" aldarripean, Euskal Herriko Neska\* Gazteen Baterajotzea ospatuko da urriaren 13tik 15era Usurbilen. Topaketa feministak ehunka lagun erakarriko ditu.

"Baterajotzea Euskal Herriko neska\* gazteen elkargune eta eztabaidarako espazioa da, elkarrekin Euskal Herria feminista irudikatzen eta erakitzen tokia, saretu eta antolatzen aukerak eskaintzen dituen".

Beharrezkotzat jotzen dute antolaketa propio bat, "neska\* gazte gisa zeharkatzen gaituzten zapalkuntza espezifikoak problematizatu eta proposamen propioek ere tokia izan dezaten, gure mundu ikuske-

ra zabaldu dezagun eta iritzirik sortzaile izan gaituzten".

Bertaratzeko gonbita egina dute antolatzaileek. Izan ere, azaroaren 30erako deitua dagoen zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba feministaren atarian, "Euskal Herriko gazte feminista guztiok elkartuko garen espazioa izango delako, greba bera indartu eta antolatzeko". Horrez gain, Usurbilgo hitzorduan parte hartzeko deia egin dute, "eskuarteantolatuko ditugun eztabaidetan

sakonduko dugulako, sistema iraultzeko proposamenak irudikatu eta artikulatuz. Utopiak pentsatu eta haustura kolektiboak antolatuko ditugu".

## Lankidetzan

Apirilaren 17an iragarri zuten Euskal Herriko Neska\* Gazteek urriko Baterajotzea Usurbilen

## "UTOPIAK PENTSATU ETA HAUSTURA KOLEKTIBOAK ANTOLATUKO DITUGU"

egingo dutela astebete barru, Mikel Laboa plazan egindako agerraldian. Udalarekin harremanetan jarri ziren antolatzaileak eta orduetik, hilabeteotan "elkarlanean aritu dira topaketak herrian egiteko beharrezkoak dituztenak lotzen: hala, Udalak ekipamendu publiko eta baliabide erabiltzeko baimena eman die".

## Muntaketa lanak hastear dira

Euskal Herri mailako topaketa feminista datorren astean izango da, baina lehenago hasiko da lekua hartzen. Muntaketa lanak bideratuko dituzte aurreko egunotan.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
eguneko menua · asteburuko menua  
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
· paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**ZENDOIA**  
**ENEA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

Zuen  
publizitatea  
hemen  
943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

**BORDATXO**  
taberna  
Pintxo Bereziak  
943 37 10 42



Samantha Hudson abeslari, aktore, ekoizle eta aktibista larunbateko kontzertuan arituko da Usurbilen.



Olatz Salvador abeslari donostiarra.



Ibil Bedi musika talde nafarra.

# Egitarau oparoa prestatu dute datorren astebururako

## Urriak 13, ostirala

- 16:00 Izen-ematea eta lo-lekuaren muntaia.
- 18:00 Harrera ekitaldia Bea Egizabalekin.
- Mahainguru zentrala: Neska\* Gazteok Utopiak Lehertzeraino!". Nerea Zubizarreta (Haziak), Malen Letamendi (Intziri), Amaia Bosque (Kalamiak), Amaiur Arguiñena (Iruñerria) eta Naia Kortaberría (EHN\*G).
- 21:00 Afaria.
- 22:30 Bertso saio musikatua: -Gai jartzailea: Jone Lizarralde.
- Musikariak: Irene Ruiz de Austri eta Aner Peritz.
- Bertsolariak: Sarai Robles, Izaro Bilbao, Eli Zaldua eta Lierni Rekondo.
- Ondoren, kontzertua: Olatz Salvador.

## Urriak 14, larunbata

- 10:00-12:00 Tailerra: zumba herrikoa.
- Mahainguru zentrala: "Asoteriskoa: subjektuaren inguru

ruko eztabaida". Alex Iturralde (Harrotzen), Mijo Lizarraburu eta Uma Ulazia (EHN\*G).

- 12:30-14:00 Hitzaldiak/ tailerrak:

- "Munstroak hemen dira. Lodi-fobia suntsitzeko lehen pausoak". Itziar Reguero (Ezin Kabitua) eta Laura Galar (Ezin Kabitua).

- Herri kirolak: "Araxes" Herri Kirol Taldea.

- "Begirada feminista dekolonialak: nekropolitika, mugak eta proiektu eraldatzaileak". Nayua Jatri ("Red Ecosocial Saharai"), Pastora Filigrana eta Michelle Antonella Carbajal.

- "Mundu berriak sortzeko, artista feministak oholtzara": Amets Aznarez, Iune Ruiz, Jone Erzilla eta Irantzu Idoate.

- "Komunikazio feminista: egia ez da existitzen, feminismoa bai". Laura Ré (Bertikala), Estitxu Garai Artetxe eta Ainhoa Vitoria (Gaztea Irratia eta Yokoon).

- "(Etxe)bizitzak gure neurria!". Maider Arregi (Infernua Bizirik), Nerea Valdés (Infernua Bizirik), Ane Salvador (Azet Etxebizitza Sindikatua) eta Jule Goikoetxea.

- "Lurraren eta feminismoaren sinergietatik". Amets Ladislao (Etxaldeko Emakumeak eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna), Mirene Begiristain Zubillaga (EHUko ikerlaria eta Biolur) eta Aintzane Ariztegi (Aroztak Herri Ekimena eta Baztango Mugimendu Feminista).

- Soinu teknikari tailerra: Ane Landa.

- 14:30 Bazkaria.

• 16:00 Mahainguru zentrala: "Gu ere greba feminista orokorrera!". Nekane Olalde (egoitzako langilea), Mariana Ur-

cuyo ("Trabajadoras no domesticadas", LAB), Elene Lopetegi (Euskal Herriko Bilgune Feminista) eta Maider Barañano (EHN\*G).

- 18:30 Mobilizazioa eta ekitaldia.

- 21:00 Afaria.

• 22:30 Kontzertuak: Ibil Bedi, Zitzada eta Samantha Hudson.

• Ondoren, DJ-ak: Dj Latxirongak eta DJ Kalimounstro.

## Urriak 15, igandea

• 10:00-12:00 Denok jasotzera! Desmuntai girotua.

- 12:00-14:00 Marianitada.

• Neska\* gazteak oholtzara! Emakume\* Artisauen Azoka.

- 14:30 Bazkaria.

• 16:00-18:00 Ondorioak eta itxiera!

**Informazio gehiago eta izen-ematea aurrez:**  
ehkoneskagazteak.eus

## Antolatzaileak:

Euskal Herriko Neska\* Gazteak.

**KONTZERTU, TAILER  
ETA MAHAINGURU  
UGARI IRAGARRI  
DITUZTE**

# Mobilizazio ugari iragarri dira udazken honetarako


Hainbat greba egun deitu dituzte datozen hilabeteetarako hezkuntza publikoan eta sektore publikoan

ELA, Steilas eta CCOO sindikatuek greba eguna deitu dute urriaren 24rako unibertsitatez kanpoko hezkuntzan, hezkuntza berezian, sukaldaritzan eta garbiketan.

Grebaren deitzaileen esanetan, greba egun honek biharamunean, hilaren 25ean eta abenduaren 19an sektore publiko osoan antolatuko diren greba egunekin bat egingo du. "Aldarrikapen nagusien artean daude lan karga arintzea, -ordutegietan kudeaketa orduak handituz, burokrazia lanak ugaritzen ari direlako- eta egungo ikaslearen errealitateari erantzuteko baliabide gehigarriak eskaintzea".

## Sektore publikoan

Gehiengo sindikalak bi greba egun deitu ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zerbitzu publikoetan, urriaren 25ean eta abenduaren 19an. "Eusko Jaurlaritzari, aldundiei eta udalei, erosahalmena bermatzea eta behin behinekotasuna %8ra murriztu arte enplegua kontsolidatzea" eskatzen dute LAB, ELA, CCOO, SATSE, STEILAS eta ESK sindikatuek. "Azken urteotan zerbitzu publikoaren kalitateak okerrera egin du nabarmen, eta lan-baldintzak okertu egin dira. Horrek zuzenean eragiten du herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatean, aurrekontu-esleipenarekin eta inbertsio politi-



EAEko zerbitzu publikoetan bi greba egun deitu dituzte.

kekin zuzenean lotuta daudenak", ohartarazi zuten irailaren 15ean egindako agerraldian.

## Zaintza greba

Azaroaren 30ean zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba deitua du Euskal Herriko mugimendu feministak "persona guztiok bizi osoan zehar, askatasunez eta konpromisoz

zaintzeko eta zainduak izateko eskubidea aldarrikatzeko".

## Greben egutegia

- Urriak 24: Hezkuntza publikoan.
- Urriak 25 eta abenduak 19: Sektore publiko osoan.
- Azaroak 30: zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba feminista.

## Kantu Taldekoak plazara itzuli dira

Usurbilgo Euskal Kantu Taldea martxan da berriro. Udako etenaldiaren ondoren, larunbat eguerdian itzuli ziren plazara. Giro ederrean aritu ziren kalejiran.

## Entseguak, astelehenetan

Entseguekin ere hasita daude. Astelehenero biltzen dira, arratsaldeko 18:00etan hasita, Agerialdeko musika gelan.



Aurrerantzean, hilabetezko azken larunbatean arituko dira kalejiran.

## "Andatza mendiko defentsa-lerroa" ibilbide antzetzua

Usurbil 1936 elkarteak iragarri du urriaren 21erako. Goizeko 8:30ean abiatuko dira Mikel Laboatik. Parte hartu nahi duenak usurbilkultura.eus plataforman eskuratu ahalako gonbidapena (urriaren 9tik aurrera). Helburua bikoitza da: 1936ko gerran, Usurbilen eta Andatzen jazotakoaren berri ematea eta berreskuratu dituzten lubakiak erakustea.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22  
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

**USURBIL DÖNER KEBAB**  
843 675 265  
603 609 183  
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL\_DK  
Borda Berri Kalea, 5

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674  
Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

## SALGAI

Izar-etxe beheko etxea salgai. 85 metro koadro inguru eta txokoa ditu. Informazioa Elizalde inmobiliarian: 943353534.

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Telefono zenbakia: 652 765 583.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiarene zaintzadun etxebizitzaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaintzeko eskolako garaian, goizez edo arratsalde. Usurbilgoa eta euskalduna naiz. 616 273 785.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa izango da. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. Hartu zure hitzordua whatsapp bidez telefono zenbaki honetan: 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Ordutegian malgutasuna. 688805307

Soziosanitario titulua dut. Adinekoak zaintzeko prest, edozein txandatan. 611 72 79 74.

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia daukat. Harremanetarako: 602 082 583.

## BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis).

## TELEFONO INTERESGARRIAK

|                          |             |                           |             |
|--------------------------|-------------|---------------------------|-------------|
| Udala                    | 943 371 951 | Gure Pakea Egoitza        | 943 368 770 |
| Atez ateko bulegoa       | 900 776 776 | Gure Elkartea Egoitza     | 686 554 145 |
| Udaltzaingoa             | 943 361 112 | Arrate Zahar Egoitza      | 692 898 492 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 | Salbatore Parrokia        | 943 361 239 |
| Gizarte Zerbitzuak       | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Bake Epaitegia           | 943 372 336 | Anbulategia               | 943 362 013 |
| Oiardo Kiroldegia        | 943 372 498 | Amenabar botika           | 943 376 076 |
| Sutegi Udal Liburutegia  | 943 360 692 | Iturralde botika          | 943 363 395 |
| Pobxoenea                | 943 371 999 | DYA                       | 943 464 622 |
| Kzguna                   | 943 023 684 | Gurutze Gorria            | 943 272 222 |
| Zumarte Musika Eskola    | 943 371 594 | Emergentziak              | 112         |
| Etumeta AEK euskaltegia  | 607 609 379 | Genero-indarkeria, arreta | 016         |
| Kalezar Eguneko Zentroa  | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea      | 943 362 163 |

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## EGUNEZ

|                |                                                                |
|----------------|----------------------------------------------------------------|
| Osteguna, 05   | DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51              |
| Ostirala, 06   | LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74            |
| Larunbata, 07  | LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74            |
| Igandea, 08    | GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08             |
| Astelehena, 09 | URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67             |
| Astearte, 10   | ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49 |
| Asteazkena, 11 | GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08             |
| Osteguna, 12   | URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67             |
| Ostirala, 13   | ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52                 |
| Larunbata, 14  | ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49 |
| Igandea, 15    | ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49 |

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

## Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## HILDAKOAK



**Nieves Aramburu Otaegui**  
Irailaren 29an hil zen, 87 urterekin

## ZORION AGURRAK



**Zorionak amona Tere!**  
Urriaren 6an urteak bete zituen amonak. Zorionak etxekoan partez.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## ASTEAZKENA 04

## AGINAGA Jaiak

San Praixku eguna. Egitarau osoa, 13. orrialdean.

## OSTIRALA 06

## AGINAGA Jaiak

Umeen Eguna. Egitarau osoa, 13. orrialdean.

## LARUNBATA 07

## AGINAGA Jaiak

Errioren eta Kintoen Eguna. Egitarau osoa, 13. orrialdean.

## USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 650usurbilbizi.eus. 12:00etan Sutegin.

## IGANDEA 08

## AGINAGA Bertso-ibilaldia sagastietan barrena

Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsolariak, Jakoba Errekondoren gidaritzapean. Izen-ematea: Alkartasuna kooperatiban (943 36 11 14). 10:00etan Aginagako plazatik.

## USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 650usurbilbizi.eus. 12:00etan Sutegin.



Igande honetan, Kubako doinuak nagusi izango dira Sutegin. ARGAZKIA: REGINO SOSA.

## Frank Delgado kantaria, Kubako Troba Berriaren oinordekoa

70eko hamarkadaren amaieran, Troba Berriaren oinordekoak agertzen hasi ziren Kubako musika-eszenan: Santiago Feliu, Gerardo Alfonso, Carlos Varela... eta Frank Delgado. Igande honetan Sutegin arituko da zuzenean, beste bi musikariz lagunduta.

Kuban eta Kubatik kanpo, kantautore iberoamerikar garrantzitsuenekin aritu da. Silvio Rodríguez, Luis Eduardo Aute, Fito Páez, Pedro Guerra, Ismael Serrano eta Daniel Vigliettiarekin, besteak beste.

## Hirukotea oholtza gainean

Sutegira hirukote formatuan etorriko da; Miguel Alejandro

Valdés eta Yibrán Riverorekin batera.

40 urtetik gorako ibilbidea osatu eta gero, Frank Delgado Kubako trobaren enbaxadorean bilakatu da. Denbora honetan hamaika disko atera eta 20tik gora herrialdetan kontzertuak eskaini ditu, nazioartean duen ospe onaren seinale argia.

## Urriak 8 igandea

- Ordua: 19:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Sarrera: 8 eurotan, usurbil-kultura.eus plataforman eskuragarri.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

## Enrike Abril, azken txanpan

Errebote txapelketa azken fasean murgildua dago. Asteburuan jokatuko dira finalerdiak. Fase honetara sailkatzeaz geratu da Zubietan, Kanboarrak taldearen aurkako final laurdeneko partida 13-6 galdu ondoren etxean.

## Finalerdietako bat, Zubietan

Urriaren 8an jokatuko dira finalerdiak eta horietako bat Zubietako errebote plazan Goizeko 10:30ean hasita, Kanboarrak eta Kapito Harri taldeak aurrez aurre arituko dira.

## Eskubaloia

## Urriak 7, larunbata

Oiardo kiroldegian  
16:00 Kadete neskek:  
-Usurbil K.E.  
-Aloña Mendi

17:30 Jubenil neskek:

-Usurbil K.E.  
-Aiala A ZKE

19:00 Senior neskek:

-Usurbil K.E.  
-Irauli Bosteko

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno.943593303 • Mugikorra: 677463867

**Kima**  
MASAJE LEKUA  
· KIROL MASAJEA  
· MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA  
Nagusia 44, behean LASARTE-ORIA 943 36 61 97

**ADA**  
-MASAJEAK-  
633 36 22 33



# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

ITE-ak

649 43 54 75  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

·ERAIKUNTZAK ·OBRAK  
·BERRITZE LANAK

**ARANKA**  
BERRIKUNTZAK

·Fatxadak estaldurak ·Estalkien berriztatzeak  
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa  
·Igeltseritza orokorra

Tel: 606 37 21 05 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

Telefona  
693 059 392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria

**ITZIRA**  
ERAIKUNTZAK

·gremioen koordinaketa  
·berritze lanak  
·sukaldeak  
·komunak

943 530 337  
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

**IRUARKAITZ**  
ERAIKUNTZAK, S.L

·FATXADAK ETA TEILATUAK  
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK  
·URALITA KENTZEKO ENPRESA  
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

**GAR**  
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15  
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



**Antonio URRUZOLA**  
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415  
Astasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**  
Salsamendi Arregi, Iñaki  
AROSZTEGIA

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA

**J. R. IBARGOEN S.L.**  
ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.aroztzi.net jr.ibargoien@aroztzi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



**ARGILAN**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**antenas Telemar**

943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



**APARICIO**  
DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943  
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**Zuri Arrain**  
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465  
zuriarrainiturgintza@gmail.com

**Rafa**  
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO MANPARAK  
· KONFINDATZAKO GREMIOAK · KOMUNENKO ALTZARIARIK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • © 943 36 80 04



**ANORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak  
·beira bikoitza ·segurtasun beirak  
·dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**maiz**  
hornigaiak

·TRESNERIA ETA ERREMINTAK  
·EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com ( ONLINE DENDA ERE)  
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

2020TIK HONA

3 DENDA



GUTXIAGO  
DITUGU  
USURBILEN

USURBILDARROK BERTAKO DENDA  
TXIKIETATIK KANPO 14 MILIOI €  
BAINO GEHIAGO GASTATZEN DITUGU URTEAN.

IZAN  
EROSLE TXIKI,  
EGIN IRAULTZA!

